# ANDOAINgo
# TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA
# **2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK**

ANDOAINGO UDALA

***Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua***

*Laguntza teknikoa:* ***ELKARREKIN 21***

TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA

Elkarrekin 21

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ORAIN GIPUZKOA

# Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

**24 urte beranduago,** esanguratsua da **Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.**

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:




**Aduna, Alkiza, Arama, Amezketa, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena** (eskualde mailako ekintza-plana), **Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.**

# Nolakoa da **gure udalerriko ekintza-plana**?

**7**
**Helburu estrategiko**

**125**
**Ekintza**

**8**
**Udal-eragile ezartze-lanetan**

## Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **antzerakoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikatuta dauden eragile-kopurua,** aldiz, lurraldeko batez bestekoa baino **baxuagoa** da.



# Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

**%47** ezarri da bere 4. urtean

**%9ko** hazkundea 2014 -2015 epealdian

## Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **ia parekoa** da desiragarria den **helburuko** balioarekiko, baina, urte horretan, lurraldeko **batez besteko balioa baino altuagoa da**.



# Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Planak 4 urte betetzerako *Hasteko* egoeran dagoen ekintzarik ez dago eta, hori, positiboa da.

*Amaituta*ko ekintzen ehunekoa altua ez bada ere, *Aurreratuta* eta *Amaitzen* dauden ekintzak %49 suposatzen dute. *Aurreratuta*ko ekintzek duten eboluzioa esanguratsua izango da hurrengo ebaluazio-emaitzetarako.



## 2015ean amaitutako ekintza adierazgarri batzuk:

1.1.4 Hirigintza arloa kudeatzeko GIS sistema ezarri

5.2.2 Udal bulegoetan autobabeserako araudia garatu

## 2015ean hasitako ekintza adierazgarri batzuk:

1.2.6 Ondare arkitektonikoaren birgaitzea bultzatu

3.1.4 Ur hornikuntza kudeatzeko GIS sistema mantendu eta eguneratu

7.2.3 Tokiko iraunkortasun batzordea edo barne mekanismoa sortu

# Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



# 2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

## Landa-lurra eta natura-espazioa indartzea eta bere biodibertsitatea babestea: %38ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Paisaia eta bioaniztasuna hobetzeko eta kontserbatzeko irizpideak eta erabilerak ezartzea.
- Andoaingo ingurune naturala leheneratzea bultzatu.
- Landa lurra babestea.

## Natura-baliabideen erabilera arduratsua eta kontsumo iraunkorragoa sustatzea: %40ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Udalerrian ur kontsumoa gutxitzea.
- Hondakin uren saneamendua bermatzea.
- Kontsumo energetikoa murriztea eta energia berriztagarrien sorkuntza eta erabilera sustatzea.
- Udal administrazioan ingurumen irizpideak barneratzea.

# Partaidetza TA21en baitan

EZ DAGO BEREZKO PARTE-HARTZE MEKANISMORIK. HERRITARRENTZAKO BILERA IREKIAK EGITEN DIRA

LANDU DIREN GAI NAGUSIAK AUZOETARA ERAMATEN DIREN UDAL-GAIAK DIRA: HIRIGINTZA ETA AURREKONTU ARLOKOAK

PARTAIDETZA PROZESUETAN UDAL-ORDEZKARIEK ETA HERRITARREK HARTZEN DUTE PARTE.

AGENDA 21EN FOROAREN PARTAIDETZA-BILERARIK EZ 2015EAN

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (**www.andoain.eus** udal-web gunean eskuragarri)

